

## "OSASUNeko/ANIMALIATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA" LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

### • LEHIAKETA FASEKO BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK

2017ko martxoaren 23an egindako bileran "Osasuneko/Animaliategiko Teknikari Espezialista" lan poltsa handitzeko hautaketa prozesuko epaimahaiak, aipatutako hautaketa prozesuko aurkeztutako merezimenduak ebaluatu ditu, eta deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2016ko apirilaren 16ko erabakia), epaimahai honek honako erabaki hauek hartu ditu:

**Lehenengoa.**- "sasuneko/Animaliategiko Teknikari Espezialista" lan poltsa handitzeko hautaketa prozesuaren lehiaketa fasearen behin-behineko emaitzak ezartzea. Lehiakideek emaitzak lan-eskaintzen atarian kontsultatu ditzakete.

**Bigarrena** :- 5 lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Erreklamazioak epaimahai kalifikatzaileari igorriko zaizkio, jakinarazpenotarako helbidea honako hau izanik, Bizkaiko campusean, Pertsonalaren gerenteordetza, AZPren zerbitzua, Hautaketa eta Hornikuntza (Sarriena auzoa, z/g, 48940 Leioa).

Leioan, 2017ko martxoaren 23an

Epaimahiko idazkaria

Asier Valdivia Palacín

